

IPUIN KONTALARIEN IX. MARATOIA. Azaroaren 25ean, Liburutegi nagusiko sotoan

1. ODEI ARREGI. *Kili-kiliak belarri atzean*



Ipuinek kili-kili egingo digute goxo eta bihurri. Hitzez zipritinduriko mundi txikiak eta aurkikuntza handiak oparituz.

2-4 urte

Ordua: 11:00etan

2. ANE ARTETXE, AMAIA IRAZABAL eta AMAIA RUIZ de GALARRETA. *Arpa magikoa*. Ipuin kontaketa musikatua.



Ba omen da urruneko mendien artean lurralde ezkutu bat: “Arpa Magikoaren lurralde zkutua”. Bertan altxor preziatu bat dagoela jakin dute Mailukote eta Maratil bidaiariak. Horregatik, mapa eskuan hartu, eta han abiatu da bikote xelebrea altxorraren bila. Haien abilezia eta abenturarako grinak altxorra deskubritu eta liburu magikoaren barrenak ezagutzera eramango ditu.

4-8 urte

Ordua: 12:00etan.

2. MIREIA DELGADO EXPOSITO. *Ekilibristak, sorgin-orratzak eta matxinsaltoak*



Bazen behin sorgin-orratzekin hegan eta matxinsaltoek bezala salto egin nahi zuen ekilibrista bat. Ondoren okurritu zitzaion sorgin-orratzekin salto eta matxinsaltoekin hegan egitea bikaina litzatekeela... Zein da bada, oreka eutsi eta hegan egin, bi hauen arteko aldea?

Galdera honi erantzun posible eta ezinezko erantzunak topatuko dizkiogu ipuin-kontaketa saio honetan!

8-14 urte

Ordua: 17:00etan

4. BEATRIZ EGIZABAL. *Magma Mia*



Haserre nago, sutan nago, irakiten nago... presio gehiegi eta zulo guztiak itxita mantentzeko hezitu naute. Sumendia lehertzeaz dago Magma mia!!!

Bakarrizketa feminista; militantziatik asko, baina umoretik are gehiago duen ikuskizunak ikusle potentzial desberdinetan gogoeta eta barreak eragitea du helburu.

Gazteak (+15) eta helduak.

Ordua: 18:00etan